

IRAGARKIA

Alkateak 2023ko urtarrilaren 2an emandako dekretu baten bitartez gazteendako alokairu sozialaren dirulaguntzak emateko oinarriak onartu dira eta honen bidez argitaratzen da:

GAZTEENDAKO ALOKAIRU SOZIALAREN DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK

Bergarako udalak 2022ko urtarrilaren 31n egindako bileran onartu zuen Bergarako udaleko diru-laguntzen plan estrategikoa 2022-2024. Bertan lerro estrategiko desberdinak jasotzen dira eta lehenengoa da Gizarte-ekintza izenekoa.

Lerro horretako 5. ekintza da gazteentzako alokairu soziala eta helburua du gazteei emantzipazio bidean etxebizitza bat alokatu dezaten laguntzea eta bide batez, etxebizitzaren alokairua sustatzea. Halaber, bertan aurreikusten da dirulaguntza hauek urtero emango direla plana indarrean dagoen bitartean eta dirulaguntza emateko deialdi irekia egingo dela eta helburu horrekin prestatu dira oinarri hauek.

GAZTEENDAKO ALOKAIRU SOZIALAREN DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK

1. artikulua. XEDEA

Oinarri hauen xedea da alokairu-gastuei aurre egiteko dirulaguntzak ematea gazteei 2023an etxebizitza alokatu dezaten, euren emantzipazio bidean laguntzeko eta etxebizitza alokairua sustatzeko.

2. artikulua. Aurrekontua

Programa honen bidez deitutako dirulaguntzen zenbatekoa 35.000 eurokoa da, eta dagokion urteko ekitaldiko "Gazteen etxebizitza alokairuak laguntza" (Programa de ayudas al alquiler de viviendas para jóvenes) izeneko partida ekonomikoaren kontura finantzatuko da: 1 0500.480.152.30.01 2023 (561). 1 0500.480.152.30.01 2023 (561)) del ejercicio anual correspondiente. Aurrekontua luzatuz gero, luzatutako aurrekontuari egotziko zaio gastua, eta dagokion ekitaldiari egotzi izan balitzaizkio bezalako ondorioak izango ditu. Uneko ekitaldirako aurrekontua onartu ondoren, baimendutako gastuak automatikoki egotziko zaizkio dagokion partidari.

Eskaerak onartuko dira dirulaguntza honetako baldintza guztiak betetzeaz gain, diru-izendapena agortu gabe balego. Lehentasuna sarrera-zenbakiaren arabera finkatuko da.

3. artikulua. Eskatzailearen baldintzak

Laguntza hauek jaso ahal dituzte oinarri hauek argitaratzen diren egunean eta diruz lagundu daitekeen epean, ondorengo baldintza zehatzak beteko dituzten pertsonak:

- a) 18 eta 30 urte (biak barne) bitarteko adina izatea eta Bergarako udalerrian ohiko egoitza izateko alokairu erregimenean etxebizitza bat alokatzea.
- b) Etxebizitza baten jabari osoaren edo erabiltzeko eta gozatzeko eskubidearen titularra ez izatea, baldin eta ez badu egiaztatzen banantze- edo dibortzio-arrazoiengatik

eskuragarri ez duela edo bere borondatearekin zerikusirik ez duen beste arrazoiren batengatik ezin duela bertan bizi.

- c) Dirulaguntzen onuradun diren bizikidetza-unitateko pertsona guztiak dirulaguntza jasoko duen etxebizitzan erroldatu beharko dira, alokairu kontratua sinatu ostean, eta datu hau dirulaguntza jaso baino lehen egiaztatu beharko dute. Dirulaguntzak jasotzen dituzten bitartean dirulaguntza jasoko duen etxebizitzan erroldatuta egon beharko dira. Halaber, kontratua hasi baino lehenagoko datarekin, kontratuaren titular ez diren pertsonak baleude etxe bizitzan erroldatuta, kontratuaren titularrek erroldan baja eskaera egin beharko dute pertsona horientzat, diruz lagun daitekeen epearen barruan.
- d) Gutxienez eskatzailearen bizikidetza-unitateko pertsona bat Bergarako herrian erroldatuta egon izana gutxienez 10 urtetan, nahiz eta era ez jarraituan izan, edota azken 2 urteetan etenik gabe, eskaera aurkezteko unean.
- e) Diru-sarrerak tarte hauen barruan egon beharko dira: 7.455,14 –28.000 euro gordin bizikidetza-unitatea pertsona bakarrak osatzen badu; edo 7.455,1– 39.000 euro gordin bizikidetza-unitatea pertsona bik edo gehiagok osatzen badute. Kontuan hartuko diren diru-sarrerak 12 hilabete jarraituko diru-sarrerak izango dira, betiere eskaera egin aurreko azken 12 hilabetekoak edo/eta eskaera egin ondorengo 12 hilabeterakoak agiri bidez behar bezala ziurtatuta badaude.
- f) Diru sarreren osaketari dagokionez, amaitutako azken zerga ekitaldiko kapital errentetatik eratorritako errendimendu gordinen zenbatekoa ezin izango da urtean 601,10 eurotik gorakoa izan.
- g) Bizikidetza-unitateko kide guztiek Bergarako Udaleko zerga, tasa eta zehapenen ordainketak egunera izan behar dituzte.
- h) Onuradunaren eta alokatzailearen artean ezin izango da inolako familia loturarik izan odolkidetasun edo ahaidetasuneko bigarren mailaraino.
- i) Etxebizitza-alokairuaren prezioa, gehienez, hileko honako hau izango da, kokalekuaren arabera, eranskinak barne:

Herrian orokorrean (Azpian aipatutako guneeetan izan ezik)	600 € hileko
Hirigune historikoa eta Martokoa-Zubiaurre, Ozaeta, Labegaraieta eta Ola-ko hiri-lur gunean (1 eta 2 planoetako eremu gorriaren barruan sartzen diren etxebizitzak)	550 € hileko
Osintxu (Hirilur gunea: 3. planoko eremu gorrian sartzen diren etxebizitzak)	450 € hileko

OHARRA: Planoak interesdunen eskura daude webgunean <https://www.bergara.eus/tramiteak>

- j) 38/2003 Legeak (Dirulaguntzen Lege Orokorrak) 13. artikuluan aurreikusten dituen debekuetako batean ere ez egotea.
- k) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
- l) Eskaera egin aurretik titularrari edo bizikidetza-unitateko edozein kideri legokiokkeen eskubide edo prestazio ekonomiko oro baliatzea.

Etxebizitza partekatzen duten gazte guztiak izan daitezke onuradun, baldin eta alokairu kontratua denek sinatzen badute eta gainontzeko baldintza guztiak betetzen badituzte. Kasu honetan, eskatzaile bakoitza bizikidetza-unitate independentea dela ulertuko da eta kontratua sinatu duten guztien artean hainbanatuta konputatuko da errenta.

Dirulaguntza hauei dagokienez, bizikidetza-unitatetzat hartuko da adinez nagusiko pertsona bakar bat edo bikote bat –kide biak adinez nagusikoak– eta kargura izan ditzaketen adin txikikoak eta baita etxebizitza horretan bizi den beste edonor ere.

Dirulaguntza eskuratu eta mantentzeko oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatuko du Bergarako Udalak, administrazio publikoen baliabide telematikoen bidez jasotako informazioaren arabera.

Hala ere, egiaztapen hori egitea ezinezkoa den kasuetan, hori egiaztatzeko eskatu ahal izango zaio eskatzaileari, behar diren dokumentuak aurkeztuta.

4. artikulua. Etxebizitzek bete beharreko baldintzak

1. Diruz lagunduko den etxebizitzak Bergarako udalerrian kokatuta egon beharko du eta dagokion bizigarritasun-baimena izan beharko du.

2. Etxebizitzak gutxienez ondorengo bizigarritasun-baldintzak bete beharko ditu:

- a) Erabiltzeko moduan dagoen sukaldea, elikatze-iturri elektrikoa edo gasezkoa duena, eta behar bezala hornitua.
- b) Dutxa edo bainuontzia duen bainugela.
- c) Erabiltzeko egoeran dagoen ur bero sistema, bainugelara eta sukaldera zerbitzuarekin.
- d) Erabiltzeko egoeran dagoen 220 volt-eko instalazio elektrikoa, dagokion buletinarekin.
- e) Iturriko ura izatea.
- f) Sare orokorrera isurketa duen saneamendua. Hala ez bada, zergatia justifikatu egin beharko du.
- g) Kalerako aireztatzea.
- h) Bizikidetza-unitateko bi pertsonako (gehienez) logela bat.

Hirigintza Saileko teknikari batek baldintza horiek betetzen direla adierazteko txostena egingo du. Txosten hori egiteko, teknikariak edozein momentutan etxebizitza ikuskatzeko aukera izango du horrela baloratzen badu.

Etxebizitzak bete beharreko baldintzetan aldaketa nabarmenik balego, onuradunak jakinarazi egin beharko dio udalari hilabete bateko epean, aldaketa gertatzen denetik.

5. artikulua. Baztertzeak

Ez dira dirulaguntzaren onuradun izango azpian jasotako egoeraren batean dauden etxebizitzak edo alokairu kontratuak edota eskaerak:

a) Ondorengo etxebizitzak:

- 1. Sustapen publikoko Babes Ofizialeko etxebizitzak.

2. Berralokairuak.
3. Logelen alokairuak (logela-eskubidea).
4. Etxebizitza gisa erabilitako lokalak, Udalak etxebizitza-erabilerarik aitortu ez badie.
5. Bizigune programaren barruan dauden alokairu-etxebizitzak.
6. GAZTELAGUN programaren dirulaguntzak jasotzen dituzten etxebizitzak.
7. Ondorengo taulan jasotako zenbatekoa (eranskinak barne) gainditzen duten alokairuko etxebizitzak:

Herrian orokorrean (Azpian aipatutako guneeetan izan ezik)	600 € hileko
Hirigune historikoa eta Martokoa-Zubiaurre, Ozaeta, Labegaraia eta Ola-ko hiri-lur gunean (1 eta 2 planoetako eremu gorriaren barruan sartzen diren etxebizitzak)	550 € hileko
Osintxu (Hirilur gunea: 3. planoko eremu gorrian sartzen diren etxebizitzak)	450 € hileko

OHARRA: Planoak interesdunen eskura daude webgunean <https://www.bergara.eus/tramiteak>

- b) Ez da onartuko urtebete baino iraupen txikiagoa duen alokairu kontraturik.
 - c) Bergarako Udaleko hirigintza-irizpideei jarraituz, datozen 10 urteetan botatzea aurreikusten diren etxeetako eskaerak.
 - d) Euren izaera edo helburua kontutan izanik, beste udal departamentu edo erakunde autonomoren baten programei zuzendu beharrekoak, hala balego.
- Edozein kasutan, dagokion departamendu edo erakundeari helaraziko zaizkie eskaera hauek, interesatuari egoera horren berri emanaz.

6. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak

1. Laguntza eskatzeko, artikulua honen 3. puntuan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko du interesdunak.

Horri dagokionez, jakinarazten da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28. artikuluan ezarritakoaren arabera, interesdunek eskubidea dutela dokumenturik ez aurkezteko honako egoera hauetakoren bat gertatzen denean:

a) Dagoeneko korporazioaren esku egotea; kasu horretan, ofizioz sartu ahal izango dira, baldin eta eskatzaileak eskabidean honako alderdi hauek adierazten baditu, eta emakida-prozeduraren instrukzioaz arduratzen den organoak egiaztatu beharko ditu:

- 1) Zein egunetan eta zein organo edo bulegotan aurkeztu edo, hala badagokio, eman ziren.
- 2) Aurkeztu eragin zuen prozeduraren izendapena. Diru-laguntzen deialdia denean, argitalpenaren epigrafea eta urtea zehaztuko dira.

Administrazioaren esku dauden datu eta dokumentuek indarraldia galduko dute, bai baliozkoak ziren aldia amaitu delako, bai prozeduran aurkeztu zirenetik bost urte baino gehiago igaro direlako. Nolanahi ere, udalak interesdunari berriro aurkezteko eskatu ahal izango dio, ebazteko beharrezkoa den edozein alderdi behar bezala egiaztatu gabe gelditu bada.

b) Beste edozein administraziok eginak izatea. Kasu horretan, Bergarako Udaleko sail eskudunak zuzenean kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatze behar dituen datuak eta/edo dokumentuak, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu arrazoiak emanez.

Interesdunak era arrazoituan bere datuak kontsultatzearen aurka egiten badu, dirulaguntza izapidetu ahal izateko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du.

Hala ere, dokumentua eskuratzea materialki ezinezkoa den kasuetan, eskatzaileari eskatu ahal izango zaio dokumentua aurkezteko, edo, bestela, dokumentu horren bidez egiaztatutako betekizunak beste bide batzuen bidez egiaztatze.

2. Eskaera aurkezteak esan nahi du pertsona edo entitate eskatzaileak oinarri hauetan eta espezifikoetan ezarritako baldintzak bere horretan onartzen dituela.

3. Dirulaguntza eskaera egiteko honako agiriak aurkeztu beharko dira:

a) Eskaera, derrigorrez udalak prestatutako eredu ofiziala erabilia. F0112 inprimakia. Eskaera hori behar bezala bete eta sinatu behar dute titularkide guztiek edo bizikidetza-unitateko 18 urtetik gorako kide guztiek.

a) Interesatuaren izenean eskaera ordezkari batek aurkezten badu, ordezkaritza-agiria (F0136) bertan zehaztutako dokumentuekin.

c) Laguntza-eskatzaile bakoitzaren NANaren edo AIZaren edo pasaportearen kopia

Adin txikikorik balego, Familia Liburuaren fotokopia ere aurkeztu beharko da.

e) Diruz laguntzea nahi den etxebizitzarena den eta indarrean dagoen alokairu-kontratuaren edo aurre-kontratuaren kopia.

e) Kontu korrontearen titularitatea egiaztatzen duen agiria.

f) Estatu mailan etxebizitzaren jabe edo usufruktuarioa ez izatearen ziurtagiria, laguntza eskatzen duten 18 urtetik gorako kide guztiena, jabetza erregistroak igorria, laguntza eskaera egin baino gehienez 30 egun lehenagokoa.

Etxebizitza baten titularkide izanez gero, honako agiriak ere aurkeztu beharko dituzte:

- Herentzia kasuan, herentziaren onarpen eta partizioaren eskritura.

- Dohaintza kasuan, dohaintza-eskritura.

- Bi kasuetan, partaidetza saldu izan balitz, eskualdaketa eskritura.

- Banantze edo dibortzio sententzia

g) Bizikidetza-unitateko kide guztiekiko, eskaera egin aurreko azken 12 hilabetetako diru-sarreraren egiaztagiria edo eskaera egin ondorengo 12 hilabeterako aurreikusten diren diru-

sarrereren idatzizko froga agiriak: lan kontratuak, pentsioak, nominak edo beste diru-sarrereren agiriak (dagokion erakundeak igorrita).

Udalak ofizioz egiaztatuko du erroldatze-baldintza betetzen dela eta Bergarako Udalarekiko ordainketak egunean dituela.

Baldintzak edo betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko, Bergarako Udalak honako kontsulta hauek egingo dizkie beste administrazio batzuei 18 urtetik gorako titularkide edo bizikidetzak-unitateko kide guztiei buruz:

- Foru Ogasunak:

- Errenta-maila (PFEZ)
- Ondare-maila
- Kontuen maila
- Ondasun higiezinak
- Zerga-betebeharrak egunean izatea.

-Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra (GSDO):

- Lan-bizitza
- GSDOrekiko obligazioen ordainketan egunean egotea

Interesdunak era arrazoituan bere datuak kontsultatzearen aurka egiten badu, dirulaguntza izapidetu ahal izateko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du. Hala badagokio, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Azken errenta-aitorpenaren kopia
Errenta-aitorpena egin ez badu, dagokion Foru Ogasunak emandako ziurtagiria, egin ez duela eta horretara behartuta ez dagoela jasotzen duena.
- Lan-bizitzari buruzko ziurtagiria, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak emana
- Dagokion Foru Ogasunaren ziurtagiria, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak.

Goian adierazitako inprimakiak interesdunen eskura egongo dira Bergararren Arreta Zerbitzuan eta Udalaren webgunean. <https://www.bergara.eus/tramiteak>.

7. artikulua. Eskabideak aurkezteko epea eta lekua.

Eskabideak Bergarako Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu ahal izango dira, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta gastua konprometitu edo urteko programaren aurrekontua agortu arte, eta gehienez ere 2023ko abenduaren 31ra arte. Dirulaguntza agortzen bada, horren berri emango da web-orrian, dirulaguntzen atalean, iragarki bat argitaratuz.

8. artikulua. Behin-behineko aitortpena eskatzeko aukera

Interesatuak aukera izango dute eskaera egiteko errentamendu-kontratua izenpetu aurretik. Horretarako, eta errentamendu-kontratua izenpetu aurretik laguntzaren behin-behineko aitortpena eskatu ahal izateko, 5. artikuluan aurreikusitako agiriak aurkeztu beharko dira, d) letran aipatutakoak izan ezik. Horren ordean, kontratu-aurreakordioa aurkeztu beharko da.

Eskabidea onartuz gero, pertsona interesdunak hiru hilabeteko epea izango du falta diren dokumentuak aurkezteko, behin-behineko ebazpena jakinarazi den egunetik aurrera.

Dokumentazioa aurkeztu ondoren, behin betiko ebazpena emango da.

Agiriak ez badira epearen barruan aurkezten, behin-behineko aitortpena baliogabetu egingo da.

9. artikulua. Akatsak zuzentzea

Eskabideak edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak akatsen bat baldin badu edo osatu gabe baldin badago, interesatuei hamar laneguneko epea emango zaie – jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera–, antzemandako hutsak konpon ditzaten.

Emandako epea amaitu eta aurkitutako akatsak konpondu ezean, eskaera bertan behera utzi dutela iritziko da, eskaera artxibatuz, 39/2015 Legeko 68. artikuluan xedatutakoarekin bat ebazpena eman eta gero.

10. artikulua. Izapidetzeaz arduratzen den administrazio-unitatea

Udal Gizarte Zerbitzuak.

11. artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa.

Dirulaguntzaren zenbatekoa izango da hileko alokairu prezioari ondorengo taulan jasotako ehunekoa aplikatuta ateratzen dena eta gehienez ere taulan horretan bertan azkenengo zutabea jasotako mugarekin:

Herrian orokorrean (Azpian aipatutako guneeetan izan ezik)	% 45	270 € hileko
Hirigune historikoa eta Martokoa-Zubiaurre, Ozaeta, Labegarieta eta Ola-ko hiri-lur gunean (1 eta 2 planoetako eremu gorriaren barruan sartzen diren etxebizitzak)	% 60	330 € hileko
Osintxu (Hirilur gunea: 3. planoko eremu gorrian sartzen diren etxebizitzak)	% 80	360 € hileko

OHARRA: Planoak interesdunen eskura daude webgunean
<https://www.bergara.eus/tramiteak>

Ez dira diruz lagunduko garaje eta komunitate eta administrazioako gastuei dagozkienak, eta ezta kontribuzio edo zerga kontzeptuetan sor daitezkeenak ere, nahiz eta dagokion kontratuan sartuta egon.

Alokairuko hileko kuotatik 50 euroko zenbateko finko bat kenduko da, aurreko paragrafoan deskribatutako garaje edo komunitate gastuengatik, alokairu kontratuan sartuta badaude, eta ez bada aurkezten horietako bakoitzaren hileko kostuaren justifikaziorik.

Dirulaguntza bakoitzaren epealdia eskaera egiten den urteko abenduaren 31n amaituko da.

Dirulaguntzen deialdia GAOan argitaratu eta hilabeteko epean aurkezten diren laguntza-eskaerak, baldintza guztiak betez gero, urtarrilaren 1eko atzera eraginezko ondorioekin jasoko dituzte laguntzak abenduaren 31ra arte.

Gainontzeko kasuetan, eskaera egin eta hurrengo hilabetearen lehen egunetik urte horretako abenduaren 31ra arte jasoko dituzte laguntzak.

Diruz lagundu daitekeen zenbatekoa kuantifikatzeko, kontutan hartuko dira bizikidetzak unitatearen diru-sarrerak ondoko taula hauen arabera:

- Bergaran orokorrean alokatzen diren etxebizitzentzako dirulaguntzak ondorengo taularen arabera izango dira.

Bizikidetzak unitatea	Diru-sarrera gordinak	% Alokairu prezioari aplikatzeko	Diru-laguntza 2023ko baremoa
Kide 1	25.000,01-28.000	% 17,5	105 €
	22.000,01-25.000	% 25	150 €
	20.000,01-22.000	% 35	210 €
	7.455,15-20.000	% 45	270 €
2 kide	33.000,01-39.000	% 17,5	105 €
	30.000,01-33.000	% 25	150 €
	26.000,01-30.000	% 35	210 €
	7.455,15-26.000	% 45	270 €

- Dirulaguntzak Hirigune historikoa eta Martokoa-Zubiaurre, Ozaeta, Labegarieta eta Ola-ko hiri-lur gunean (1 eta 2 planoetako eremuan sartzen diren etxebizitzak – Eremu gorriaren barruan daudenak)

Bizikidetzak unitatea	Diru-sarrera gordinak	% Alokairu prezioari aplikatzeko	Diru-laguntza 2023ko baremoa
Kide 1	25.000,01-28.000	% 30	165 €
	22.000,01-25.000	% 40	220 €
	20.000,01-22.000	% 50	275 €
	7.455,15-20.000	% 60	330 €
2 kide	33.000,01-39.000	% 30	165 €
	30.000,01-33.000	% 40	220 €
	26.000,01-30.000	% 50	275 €
	7.455,15-26.000	% 60	330 €

- Dirulaguntzak Osintxun (Hiri-lur gunea – 3. planoan eremu gorriaren barruan daudenak)

Bizikidetza unitatea	Diru-sarrera gordinak	% Alokairu prezioari aplikatzeko	Diru-laguntza 2023ko baremoa
Kide 1	25.000,01-28.000	% 50	225 €
	22.000,01-25.000	% 60	270 €
	20.000,01-22.000	% 70	315 €
	7.455,15-20.000	% 80	360 €
2 kide	33.000,01-39.000	% 50	225 €
	30.000,01-33.000	% 60	270 €
	26.000,01-30.000	% 70	315 €
	7.455,15-26.000	% 80	360 €

Dirulaguntza gehienez 5 urtetan jaso ahal izango du bizikidetza-unitate bakoitzak, baldin eta baldintzak betetzen baditu eta udalak dirulaguntza-lerro hau mantentzen badu.

Dirulaguntza hau eta GAZTELAGUN programaren bitarteko laguntza gehienez bost (5) urtez jasoko da. Beraz, bi dirulaguntzen arteko gehieneko iraunaldia bost (5) urtekoa izango da. Salbuespena egingo da Hirigune historikoa eta Martokoa-Zubiaurre, Ozaeta, Labegaraieta eta Ola-ko hiri-lur gunean (1 eta 2 planoetako eremuan sartzen diren etxebizitzak – Eremu gorriaren barruan daudenak) eta Osintxun (Hiri-lur gunean – 3. planoko eremu gorriaren barruan daudenak) alokatutako etxebizitzetan. Gune hauek etxebizitzek, GAZTELAGUN programan eskainitako laguntzaz gain, araudi honetako laguntzak 5 urtez jaso ditzakete, betiere bata bestearen ondoren eta ez denboraldi berean.

Urte bakoitzean dagokion eskaera egin beharko da.

Oharra: Laguntza hauek eragin fiskala dute errenta aitorpenean, izan ere aitortutako alokairuaren gastuari kendu egin behar zaio jasotako laguntzaren kopurua.

12. artikulua. Dirulaguntzaren ordainketa

Onartutako dirulaguntza izaera pertsonalekoa da.

Dirulaguntzaren ordainketa hileroko egingo da.

Ordaindutako alokairuen ordainagiriak aurkeztu beharko dira; uztailean lehenengo sei hilekoak eta hurrengo urteko urtarilean bigarren sei hilekoak.

Aipatutako ordainagiriak aurkezten ez badira, dirulaguntza eten egingo da eta justifikatu gabeko laguntzak itzultzeko prozedura martxan jarriko da.

Hileko ordainketen zerrenda Gizarte Zerbitzuetatik Kontuhartzailatza Zerbitzura bideratuko da, honek ordainketa egin dezan.

13. artikulua. Agiri justifikagarriak

Behin dirulaguntza onartuta, oinarri hauen xede diren dirulaguntzak egiaztatzeko eta egindako ordainketak justifikatu ahal izateko, ondorengo egiaztatze-agiriak aurkeztu beharko dira:

- a) Alokairu-kontratuaren baitan egindako hileko ordainketen agiriak. Ordainketak banketxe bidez egindakoak izan beharko dira eta ondorengo kontzeptuak azaldu beharko dira: pertsona fisiko edo juridiko igorlearen identifikazioko eta lokalizazioko oinarritzko datuak, haren identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ) edo nortasun-agiri nazionala (NAN), haren gastu-kontzeptua eta zein epeari dagokion eta zenbatekoa.
- b) Onuradunaren egoeran aldaketaren bat izan bada, oinarri hauetan ezarritakoaren arabera dokumentazio berria aurkeztera behartzen duena, dokumentazio hori aurkeztu beharko du.

14. artikulua. Beste dirulaguntzekiko bateraezintasuna

Oinarri hauen arabera emandako dirulaguntzak helburu berarekin ematen diren beste dirulaguntzekin bateragarri ezinak izango dira. Besteak beste honako hauekin:

- 1.– Errentamenduko babes publikoko etxebizitza bat izatea.
 - 2.– Errentamenduko etxebizitza pribatu bat izatea Merkatu Libreko Etxebizitzen Alokairurako Bitartekaritzako ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa) programaren bidez edo Etxebizitza Hutsen Bizigune Programaren bitartez.
 - 3.– Diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) eta administrazio publikoen gizarteratze-politiketarik eratorritako beste edozein errenta jasotzea.
 - 5.– Gizarte-larrialdietarako laguntzak (GLL) jasotzea, Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 44. artikulua 2.a) apartatuan aipatutako alokairu-gastuei loturik daudenak.
 - 5.– Etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO), etxebizitzarako prestazio ekonomikoa (EPE), GAZTELAGUN programa edo alokairuko gastuak ordaintzen laguntzen duten beste administrazio edo erakunde publiko batzuen edozein dirulaguntza jasotzea.
- Dena den, GAZTELAGUN dirulaguntzari dagokionean, kontuan hartuko da oinarri hauetako 11. artikuluan jasotakoa, eta han zehaztutako egoera bat ematen denean, han jasotakoa aplikatuko da.

15. Artikulua. Prozedura.

Instrukzioa eta proposamena

1. Gizarte Zerbitzuen Sailari dagokio deialdi honetan aurreikusitako laguntzak kudeatzeko lanak egitea.
2. Beharrezkoak diren txostenak (tartean kontuhartzailearena eta Hirigintza Saileko teknikariarena) eskatu eta eskaeraren gaineko txostena Gizarte Zerbitzuek egin ondoren, Ongizate batzordean proposamena bideratuko dio Alkateari erabakia har dezan.

Ebazpena

Laguntza edo dirulaguntza emateko edo ez emateko erabakia arrazoitu egin beharko da, eta, edozelan ere, erabakia deialdiaren oinarri-arauetan jasotako irizpide objektiboen arabera hartu dela egiaztatu beharko da.

Dirulaguntza ematen bada, eskatzaileari jakinaraziko zaion erabakian, berariaz agertuko dira, besteak beste, xedea eta dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordainketa era.

Ebazpena erabaki eta jakinarazteko gehienezko epea hiru hilabetekoa izango da dirulaguntza eskaera egin den egunetik hasita. Aipatutako epean ebazpenik ez balego, aurkeztutako eskaera atzera bota dela ulertu ahal izango du eskatzaileak.

Ordainketa

Onartutako eskaerekin hilabeteko ordainketarako zerrenda bat eratuko dute Gizarte Zerbitzuek eta Kontuhartzailetzara eramango dute ordainketak egiteko.

16. Artikulua. Dirulaguntzen kontrola.

Bergarako Udalak egokitzat jotako agiriak aurkeztu ditzatela eskatu ahal izango die onuradunei eta inspekzioak egin. Udal zerbitzuak udalaren datu baseak kontsultatu ahal izango dituzte dirulaguntzaren oinarrietan adierazitako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko helburu bakarrarekin

Bergarako Udalak, bere fiskalizazio eginkizunak betetzeko, informaziorik eskatuz gero, dirulaguntzen onuradunek eman egin beharko diote.

17. artikulua. Obligazioak ez betetzea. Itzulketa kasuak.

1. Dirulaguntzen 38/2003 Legearen 36. artikuluan xedatutakoez gain, dirulaguntza emateko erabakiaren deuseztasun nahiz deuseztagarritasun kasuetan, bidezkoa izango da jasotako dirua itzularaztea eta berandutza-interesa eskatzea (dirulaguntza edo laguntza ordaindu den unetik aurrerakoa), ondorengo egoeraren bat gertatuz gero:

- a. Jasotako fondoak zertarako erabili diren justifikatzeko obligazioa ez betetzea, edo behar beste ez justifikatzea, ezarritako eran eta epeetan.
- b. Dirulaguntza eskuratu izana horretarako eskatutako baldintzak faltsutuz, edo dirulaguntza jasotzea galaraziko zuketan baldintzak ezkutatuz.
- c. Dirulaguntza ematerakoan onuradunei ezarritako baldintzak ez betetzea.
- d. Dirulaguntza emateko oinarri den xedea ez betetzea, osoki edo zati batean.

Horri dagokionez, eta udalak berariaz besterik erabaki ezean, dirulaguntza ematerakoan onartu ziren jarduera edo programen % 50 baino gutxiago gauzatu izana bete gabeko jarduera edo programatzat joko da.

- e. Organo eskudunen kontrol-jarduerei uko egitea edo oztopoak jartzea.
- f. Laguntza edo dirulaguntza bakoitzaren oinarri espezifikoetan xedatutako gainerako kasuetan.

2. Diru-itzulketak udalak zehaztutako epeetan egin ezean, itzuli beharreko kopuruak premiamendu bidez ordainarazi daitezke.

18. artikulua. Dirulaguntza itzuli arazteko prozedura

1. Dirulaguntza eman zuen organoak berak izango du eskumena jaso den zenbateko osoaren edo zati baten itzulketa exijitzeko akordioa hartzeko.
2. Dirulaguntza itzultzeko prozedura ofizioz hasiko da, laguntza edo dirulaguntza ematen duen organoak hala erabakita, hura izapidetzeko ardura duen administrazio-atalak txostena egin eta gero, edo bestela banakoren batek eskatuta edo salatuta.
3. Prozedura izapidetzean, beti bermatuko da interesdunari entzunaldia emateko eskubidea.
4. Emandako dirulaguntza osoa edo horren zati bat ez dela behar bezala erabili egiaztatuz gero, organo eskudunak ebazpen arrazoitua emango du, eta bertan argi adieraziko du zergatik itzuli behar den dirua, zenbat itzuli behar den, nola eta noizko, eta onuradunari ohartaraziko zaio dirua agindutako epean itzuli ezean premiamenduzko bideari ekingo zaiola.
5. Itzultzeko prozedurari arau-hauste administratibo baten ondorioz ekin bazaio, horren berri emango zaio organo eskudunari, dagokion zigor-prozedurari hasiera eman diezaion.
6. Itzultzeko prozedura dirulaguntzaren eskatzaile edo onuradun gisa agertzen diren pertsona fisikoen aurka zuzenduko da.
7. Dirulaguntza gehi dagozkion berandutza-interesak itzultzeko erantzukizun solidarioa edo subsidiarioa erabakitzeko, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 40. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

19 artikulua. Bermeak

Ez da beharrezkotzat jotzen emandako laguntzak direla-eta udalaren aldeko bermeak eskatzea.

20. artikulua. Datu pertsonalen tratamendua.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorra aplikatuz, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legearen Zortzigarren Xedapen Gehigarria aplikatuz eta, oro har, 39/2015 Legearen 28. artikuluan jasotako aurreikuspena aplikatuz, dirulaguntza hauek kudeatzeko ez da beharrezkoa izango interesdunaren baimena, eta Udalak bere eskumenak erabiliz datuen zehaztasuna egiaztatzeko behar beste egiaztapen egin ahal izango du, bai eta bere esku dauden edo beste edozein administrazio egin dituen dokumentuak kontsultatu eta eskuratu ere.

20. artikulua. Oinarri-arauen interpretazioa

Oinarri-arau hauek interpretatzerakoan sor daitezkeen zalantzak Alkateak erabakiko ditu, bera baita deialdi hau onartzeko eskumena duen organoa, dena delako batzorde informatzaileak, hala badagokio, aldez aurretik programaren arabera txostena egin eta gero.

21. artikulua. Araudi aplikagarria

Oinarriotan xedatuta ez dagoen guztian, honako hauek aplikatuko dira: Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra, 887/2006 Errege Dekretua, Bergarako Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorra, Bergarako Udalaren Aurrekontua Betearazteko Araua, eta gai honen inguruan indarrean dauden gainerako arauak.

22. artikulua. Oinarrien aurkako errekurtsok

Oinarri-arau hauek onartzeko akordioaren aurka, zeinak administrazio bidea amaitzen duen, berraztertzeke errekurtsok jarri ahal izango da nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsoren aurretik eta hilabeteko epean; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsok jarri ahal izango da zuzenean Donostiako Administrazioarekiko Auzi Epaitegian, bi hileko epean. Aipatutako bi epeak oinarri-arau hauek deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita zenbatuko dira.

Horrek guztiak ez du esan nahi, ordea, bidezkotzat jotzen den beste edozein egintza edo errekurtsok jarri ezingo denik.

Bergara, 2023ko urtarrilaren 3a

Alkateak